

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Badakigu **FastLooking** martxan jartzeko eta garatzeko ezinbestekoa dela hainbat eragile eta enpresarekin aliantzak eratzea. Horretarako, gure lehen helburua izango da moda, kosmetika eta ile-zaintzako markekin lankidetzak estrategikoak sortzea, gure ispilu adimendunean eta aplikazio mugikorrean haien produktuak modu egokian gomendatzeko.



Hasierako fasean, proiektuaren funtzionamendua eta bideragarritasuna bermatzeko, teknologia enprekin eta software-garatzailerekin elkarlanean arituko gara, adimen artifizialaren garapena eta datuen segurtasuna ziurtatzeko. Aliantza horiek funtsezkoak izango dira FastLooking fidagarria eta eraginkorra izan dadin.



Era berean, merkaturatze-fasean, influencer, estilista eta eduki-sortzaileekin lankidetzan jardungo dugu, produktuaren erabilera erakusteko eta publiko gaztearengana iristeko. Horrek FastLookingen ikusgarritasuna handituko du eta erabiltzaileen konfiantza sendotuko du.

Bestalde, FastLooking proiektua hedatzeko, merkataritza elektronikoko plataformekin eta ordainketa-sistemekin aliantzak bilatuko ditugu, erabiltzaileek gomendatutako produktuak erraz eta segurtasunez erosi ahal izan ditzaten. Horrek erabiltzaileen esperientzia hobetuko du eta, aldi berean, proiektuaren diru-sarrerak handituko ditu.

Azkenik, hornitzaile teknologikoekin eta marketin-agentziekin elkarlanean jardutea ezinbestekoa izango da, FastLooking etengabe eguneratu eta hobetzeko. Aliantza horien bidez, proiektuak merkatuan lehiakorra izaten jarraituko du eta erabiltzaileen beharretara egokitzen jarraituko du.

Azken finean, elkarlana eta aliantza estrategikoak funtsezkoak izango dira FastLooking proiektuaren arrakasta eta iraunkortasunerako. Horien bidez lortuko dugu erabiltzaileei balio erantsia eskaintzea, irudi pertsonala zaintzeko irtenbide berritzaile, pertsonalizatu eta irisgarri baten bidez.

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoak dira aliatuak, hau da, gurekin batera proiektuan parte hartuko duten marka eta enpresak. Hauek izango lirateke gure aliatuak:



Aliatu eta aliantza mota	Enpresa/Marka	Deskribapena	Aliatuen helburua
Makillaje Markak <i>Aliantza mota:</i> Lankidetza-aliantza		Makillaje inklusiboa eta naturala eskaintzen duen marka, tonu eta azal mota guztietara egokitua. FastLooking ispiluak marka honen produktuak erabiltzailearen ezaugarrietara egokituta gomendatuko lituzke.	Erabiltzaileei makillaje pertsonalizatua eskaintzea eta produktuen salmenta handitzea gomendio adimendunen bidez.
Makillaje Markak <i>Aliantza mota:</i> Lankidetza-aliantza		Makillaje profesional eta joera berritzaileetan espezializatutako marka. FastLooking bidez, estilo ausartagoak edo ekitaldi berezietarako makillajeak gomendatuko litrateke.	Marka ikusgarritasuna handitzea eta erabiltzaileei makillaje aurreratuko aukerak eskaintzea.
Moda Markak <i>Aliantza mota:</i> Lankidetza-aliantza		Gazteei zuzendutako arropa marka, estilo zaindu eta egunerokoarekin. FastLookinge k arropa-konbinazioak proposatuko lituzke erabiltzailearen gustuen arabera.	Erabiltzaileei estilo pertsonalizatua eskaintzea eta markaren salmentak handitzea.
Moda Markak <i>Aliantza mota:</i> Lankidetza-aliantza		Moda azkarrean liderra den marka, estilo eta joera anitz eskaintzen dituena. FastLookinge k erabiltzailearen gorputz-morfologia ra egokitutako outfitak gomendatuko	Bezeroei erosketa esperientzia erraztea eta gomendio digitalen bidez salmentak sustatzea.

		lituzke.	
Ile-zaintza Markak <i>Aliantza mota:</i> Lankidetza-aliantza		Ile-zaintzako eta estilismoko tresna profesionalak eskaintzen dituen marka. FastLookingek ile motaren arabera produktu egokienak gomendatuko lituzke.	Erabiltzaileei ilearen zaintza hobetzea eta produktu espezializatuen erabilera sustatzea.
Teknologia Enpresak <i>Aliantza mota:</i> Teknologia-aliantza	Google, Android 	Adimen artifiziala eta aplikazio mugikorraren garapenerako laguntza teknologikoa. FastLooking app-aren funtzionamendua eta pertsonalizazioa hobetzeko.	Esperientzia digitala optimizatzea eta aplikazioaren errendimendua hobetzea.
Influencer eta Sortzaileak <i>Aliantza mota:</i> Komunikazio-aliantza	Moda eta beauty influencerrak 	FastLooking ispiluaren erabilera erakutsi eta sare sozialetan zabaltzeko. Erabilera errealak eta gomendioak partekatuko lirateke.	Produktuaren ikusgarritasuna handitzea eta publiko gaztearengana iristea.